

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Nortzuk izango dira gure bezeroak?

Garraio publikoa erabiltzen duen jende guztia. Metro Bilbao, Kbus, Bizkaibus, Bilbobus eta probintziako beste garraio motak erabiltzen dituzten bezeroak (tranbia, euskotren, Portugaleteko zubia, herri-autobusak...). Ondoren, bizikleta zerbitzuetara areagotuko genuke zerbitzua proiektua arrakasta badauka (Bilbobizi eta Bizkaibizi, esaterako).

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Garraio publikoa erabiltzen duen jendea. Ikasleak, langileak... Bizkaian bizi diren pertsonak. Pertsona horiek baloratzen dute erosotasuna eta gure produktuaren eginkortasuna.

Gure bezeroen zer premia asetzen dugu gure produktuarekin?

Garraio publikoa erabiltzerakoan erosotasuna eta efizientzia handitzen du gure produktua. Gure pultseran Barik txartela dago, eta horrela, kontaktu gabe (contactless txartela), bezeroek eskua hurbilduz soilik ordaintzeko gai izango dira. Ez da beharrezkoa izango Barik txartela fisikoki edukitzea, eta pultsera moduan eramanda, galtzeko zailagoa izango da.

Zein izango da gure merkatu mota?

Merkatu masiboa: gure produktua jende kopuru handi bati zuzenduta dago, eta ez dauka segmentazio espezifikorik. Gure helburua bezero kopuru handiena lortzea da, eta lortzea jende guztia gure produktua erabiltzea.